

## **EAEren egoera politikoa ez bezala, egoera ekonomikoa eta soziala onak direla adierazten dute Euskadiko gazteek**

Euskadiko gazteen iritziz, arazo pertsonal nagusiena lan-merkatua da, eta EAEko arazorik handiena, etxebizitza

---

Gazteen argazkiak seriearen azkeneko txostenak aditzera ematen du lan-merkatua eta etxebizitza eskuratzea direla Euskadiko gazteek (% 44k eta % 37k, hurrenez hurren) gehien azpimarratzen dituzten **arazo pertsonalak**. Arazo hauez aparte, aipatuena ikasketak, arazo ekonomikoak, osasuna eta osasungintza eta familia dira.

Datu hauek 2000koekin alderatuz gero, lanak eta etxebizitzak Euskadiko gazteek gehien azpimarratzen dituzten bi arazo pertsonalak izaten jarraitzen dute. Aldi honetan etxebizitza gero eta gazte gehiagok aipatu dute arazo pertsonal gisa, eta lan-merkatua gero eta gazte gutxiagok.

2000n, gazteek, lanaren eta etxebizitzaren ondotik zerrendatzen dituzten arazo pertsonalak terrorismoa, politika, ikasketak eta drogak dira; 2007an, ordea, gazte gutxiagok uste dute goiko horiek arazo pertsonalak direnik. 2007an ikasketak, arazo ekonomikoak, osasuna, familia eta azpiegiturak eta garraioa aipatzen dituzte gazteek arazo pertsonal nagusi gisa; gai horiek, ordea, ez dira arazo pertsonal garrantzitsuen artean ageri 2000. urtean.

Gazteen arazo pertsonal nagusiak. Portzentajeak. EAE. 2000-2007

2000					
Lana	64	Politika	15	Drogak	10
Etxebizitza	31	Ikasketak	12		
Terrorismoa	19	Dirua	10		

2007					
Lan-merkatua (langabezia, prekaritatea, lan baldintzak...)	44	Gatazka eta Euskal Herriko egoera politikoa	3	Ingurumena	1
Etxebizitza	37	Delinkuentzia eta herritarren segurtasun eza	3	Balioen krisia, berekoikeria, intolerantzia	1
Ikasketak, hezkuntza	16	Inmigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria)	3	Arazo eta desberdintasun sozialak	1
Arazo ekonomikoak	13	Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura	2	Drogak	1
Osasuna, osasungintza	7	Terrorismoa, indarkeria, bakerik eza	2	Emakumeen aurkako indarkeria	0
Familia	6	Berariaz gazteenak diren arazoak (lokalik eza...)	2	Justizia	0
Azpiegiturak eta garraioa (trafikoa, aparlekuak...)	6	Egoera linguistikoarekin lotutako arazoak	2	Beste arazo batzuk	7

Iturria: *Euskadiko gazteak* txostena eta *Gazteen arazak* seriea. Gazteen Euskal Behatokia  
Ehuneko baturak ez du 100 ematen, gazteek gehienez ere hiru arazo aipa zitzaizkete eta


### EAEren egoera ekonomiko, sozial eta politikoa

EAEko **egoera ekonomikoari** dagokionez, gazteen % 72k iritzi positiboa dute. 2002ko balorazioaren aldean, 2007koa positiboagoa da.

Euskadiko gazteen % 64k uste dute EAEko **egoera soziala** ona edo oso ona dela. 2002ko datuak ikusirik, egoera sozialaren inguruan ikuspuntu positiboa duten gazteen kopuruak gora egin du. Aurtengo datuak eta 2006koak konparatzen badira, ordea, balorazio positiboa % 8 jaitsi da.

**Egoera politikoari** buruzko iritzien azterketak erakusten duenez, biztanle gazteek egiten duten balorazioa negatiboa da, % 23k baizik ez baitiote positiboa dela. Aurreko aldietan ere egoera politikoaren balorazioa negatiboa izan da, baina bi urte azpimarratu behar dira: 2004. urtean gazteen % 37k ikuspuntu positiboa izan zuten; eta 2006an gazteen erdiak baino gehiagok egoera politikoari balorazio positiboa eman zioten.

Gazteek egiten duten balorazioa EAEren egoera ekonomiko, sozial eta politikoari buruz. Portzentajeak. EAE. 2002-2003-2004-2005-2006-2007. Balorazio positiboa (oso ona + ona)



Iturria: Gazteen argazkiak seriea. Gazteen Euskal Behatokia

### EAEn egoera orokorra

Gazteen iritziz, EAEn arazo nagusienetako bat etxebizitza da (% 66). Ondotik lan-merkatuaren egoera (% 48), indarkeria, terrorismoa, bakerik eza, bake prozesua (% 34) eta gatazka eta egoera politikoa (% 23) datoz.

2006ko arazoekiko, ikus daiteke etxebizitza dela oraindik ere arazorik handiena EAEn, biztanle gazteen ustetan. Are gehiago, etxebizitza arazo gisa definitzen dutenen kopurua igo egin da. Aitzitik, lan-merkatuaren egoera berebiziko arazoetako bat dela dioten gazteen proportzioak behera egin du.

Terrorismoa, indarkeria edo EAEn egoera politikoa EAEn garrantzizko arazo direla uste duten gazteen kopurua handitu egin da.

EAEko arazo nagusiak, Euskadiko gazteen iritziz. Portzentajeak. EAE. 2006-2007

2006					
Etxebizitza	60	Delinkuentzia eta herritarren segurtasun eza	4	Arazo eta desberdintasun sozialak	2
Langabezia, lanaren prekarietatea	58	Hezkuntza, hezkuntza sistema	3	Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura (laguntzak...)	1
Terrorismoa, indarkeria, bakerik eza	22	Bake-prozesua	3	Ingurumena	1
Gatazka eta Euskal Herriko egoera politikoa	17	Berariaz gazteenak diren arazoak (lokalik eza...)	2	Giza balioak	1
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria...)	12	Egoera linguistikoarekin lotutako arazoak	2	Beste arazo batzuk	1
Arazo ekonomikoak	6	Drogak	2		
Azpiegiturak eta garraioa (trafikoa, aparkalekuak...)	4	Osasungintza	2		

2007					
Etxebizitza	66	Hezkuntza	4	Balioen krisia, berekoikeria, intolerantzia	1
Lan-merkatua (langabezia, prekarietatea, lan baldintzak...)	48	Berariaz gazteenak diren arazoak (lokalik eza...)	3	Emakumeen aurkako indarkeria	1
Indarkeria, terrorismoa, bakerik eza, bake-prozesua	34	Osasuna, osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza	2	Pentsioak	0
Gatazka eta Euskal Herriko egoera politikoa	23	Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura (laguntzak...)	2	Familia	0
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria...)	11	Ingurumena	2	Justizia	0
Arazo ekonomikoak (egoera ekonomikoa, etxebizitzaren prezio altuak)	7	Drogak	2	Ustelkeria eta iruzurra	0
Delinkuentzia eta herritarren segurtasun eza	5	Egoera linguistikoarekin lotutako arazoak	2	Beste arazo batzuk	2
Azpiegiturak eta garraioa (trafikoa, aparkalekuak, errepideak...)	4	Arazo eta desberdintasun sozialak	1		

Iturria: *Gazteen arazak* seriea. Gazteen Euskal Behatokia  
 Ehuneko baturak ez du 100 ematen, gazteek gehienez ere hiru arazo aipa zitzaizketen eta

**Erlazionatutako datuak kontsultatzeko:**

Euskadiko gazteek ematen duten egoeraren balorazioari buruzko adierazle estatistikoak.

**Erlazionaturiko estekak:**

Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak